

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Faszismoa eta memoria-lekuak” jardunaldiak antolatu ditu Nafarroako Gobernuak

Urriaren 7tik 9ra bitartean egingo dira. Hitzaldiak izango dira Artxibo Nagusian eta irteerak Azkoien, Sartaguda eta Ezkabara; hori guztia doan.

Ostirala, 2016.eko irailak 30

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak

"[Faszismoa eta memoria-lekuak](#)" jardunaldiak antolatu ditu. Urriaren 7tik 9ra bitartean hitzaldiak izango dira Nafarroako Artxibo Nagusian eta autobusez Azkoienara, Sartagudako Memoria Parkera eta Ezkaba Mendiko botilen hilerrira joateko aukera izango da. Jardunaldietan parte hartzeko izena eman behar da urriaren 5a baino lehen,

Azkoien eta Sartagudarako bisitetarako bezala; Ezkabara joateko, aldiz, urriaren 3a baino lehen eman behar da izena. Jarduera guztiak doakoak dira.

Jardunaldiak urriaren 7an, ostiralean, inauguratuko dira, 12:00etan, Nafarroako Artxibo Nagusian; hitzaldiak ere bertan egingo dira. 12:15ean, "Faszismoa Europan" gaia jorratuko da; hain zuzen ere, Valentziako Unibertsitateko Ismael Sazek "La guerra civil europea y el concepto de fascistización" izeneko hitzaldia emango du. 16:30etik aurrera, memoriak duen garrantziaz arituko dira, CSICeko Manuel Reyes Materen hitzaldiarekin: "La dimensión ética de la memoria". Ondoren, Bartzelonako Unibertsitateko Ricard Vinyesek hartuko du parte, "La gestión pública del pasado: qué memoria europea" hitzaldiaren bitartez. Eta, azkenik, Compostelako Done Jakueko Unibertsitateko Lorenzo Fernández Prietok "Pasado incómodo y memoria diferente. ¿Víctimas sin verdugos?" hitzaldia eskainiko du.

Urriaren 8an, larunbatean, goizeko 9:00etan, "Memoriaren espazioak" gaiari helduko diote, EUROMeko Jordi Guixéren "Lugares muertos, memoriales vivos. Espacios de memoria en Europa" hitzaldiarekin. Jarraian, CSICeko Francisco Ferrándizek "Exhumaciones y políticas de memoria" hitzaldia eskainiko du. Eguerdiko 12:00etan, autobusa irtengo da 13:00ean Azkoienen emakume errepresaliatuaren



eskulturaren inaugurazioan parte hartzeko. 16:30ean, berriz, Sartagudako Memoria Parkea bisitatuko da.
Azkenik, urriaren 9an, igandean, 11:00etan, Ezkaba eta botilen hilerria bisitatuko dira.